

RITA MARIGORRINGOA

IPUINAREKIN EGITEKO JARDUERAK

Jarduera honekin, eduki hauek landu ditzakezu:

Nork bere burua ezagutzea eta autonomia pertsonala eremua:

1., 2., 3. eta 4. multzoak.

Ingurua ezagutzea eremua: 2. multzoa.

Hizkuntzak: **Komunikazioa eta irudikapena** eremua:

1., 3. eta 4. multzoak.

EZAGUTZEN AL DUGU ELKAR?

Aurretiazko oharra

Jardueraren helburua da ohartzea ez garela bat eta bakarrak, inor ez bezalakoak; aitzitik, beste askok ere gure gustu, beldur eta zaletasunak dituztela. Alderdi horiek partekatzeak lagundu egin diezaguke elkarrengana gerturatzen eta adiskidetasun-harremanak sortzen.

Horren berri izateko, hainbat eta hainbat galdera zerrenda ditzakegu. Hona hemen zenbait adibide:

- Zein elikagai edo fruta ditugun gustuko (edo zein ez ditugun gustuko)
- Zein abesti edo abeslari ditugun gustuko, edo zein ez.
- Zein zaletasun ditugun.
- Zein kolore dugun gustukoen.
- Beste batzuk.

Garapena

- Jarri haurrak biribilean. Azaldu galderak egingo dizkiogula bakoitzari, ordenan. Besteek, bitartean, arretaz entzun eta eskua jaso beharko dute, baldin eta galdera egin zaion haurrak emandako erantzuna bat badator buruan dutenarekin. Jasota eutsiko diote eskuari, jaisteko esaten diegun arte.
- Egin galderak, banan-banan. Zenbatu egingo dugu zenbat hurrek jaso duten eskua, eta galdera egin zaion haurrari ikusaraziko diogu zenbat pertsona datozen bat berekin. Horrez gain, litekeena da haur batek esandakoarekin inor bat ez etortzea, hala nola zaletasun batekin. Halakoetan gogoan izango dugu adibide hori, gogoeta egiteko.
- Behin talde osoari galdera-txanda egin eta gero, hausnartu hurrekin. Helburu horretarako, era honetako galderak egingo dizkiegu:
 - Sarritan etorri al zarete bat beste hurrekin?
 - Ohartu al zarete bat gatozela, hainbat eta hainbat gauzetan, beste hurrekin?
- Horrez gain, hau galdetu diezaiekegu, jasotako esku asko izan ez dituzten edo jasotako eskurik izan ez duten adibideen inguruan:

- Zuetako asko ez zarete bat etorri honetan: ... Ezagutzen al zenuten zaletasun edo gustuko gauza hori? Izan nahi al duzue horren berri? Nahi baduzue, zoazte (haurraren izena) dagoen tokira, eta egizkiozue horri buruzko galderak.
- Azaldu gu guztiok garela besteak ez bezalakoak: garai zein baxuak garela, begi urdin edo marroiak ditugula, betaurrekoak daramatzagula... baina, taldean, guztiok garela garrantzitsuak, besteen hein berean. Desberdinak garenez, nork bere ekarpenak egin ditzake. Onura handiak ditu horrek; izan ere, besteak beste, zerbaitetan oso trebea den norbaitek lagundu egin diezaioke horretan traketsagoa den norbaiti.

IRAKUKETA-FITXA: RITA MARIGORRINGOA

Beharko dugun materiala

«Rita marigorrinoa» ipuina (Eranskina eta [esteka](#)).

Aurretiazko oharra

Jarduerak «prozesu» batean sakontzea du jomuga: adiskidetasunean. Prozesu horrek barne du beste pertsona hori ezagutzea, eta adiskide egiteko oinarri sendo bat finkatzea.

Mezu honetan laburbilduta dago ipuinaren edukia:

Lagunak izateko, elkar ezagutu behar dugu: elkarrekin egin behar dugu jolas, ez dugu inor baztertu behar eta partekatu egin behar dugu, besteak beste.

Garapena

- Irakurri hurrei «**Rita marigorrinoa**» ipuina.
- Behar izanez gero, zenbait galdera egin diezazkiekegu ikasleei, ipuina irakurri eta gero. Horrela, istorioa behar bezala ulertu dutela ziurtatuko dugu. Esaldi bakoitza entzun eta gero, ikasleek zuzena ala okerra den erantzun beharko dute.
 - Ritak gorputz gorria du, eta tanto beltzak, beste marigorrinoek bezala.
 - Jolasgaraian, guztiek egin nahi zuten Ritarekin jolas.
 - Elia bakarrik hurbildu zen Ritarekin jolas egitera.
 - Elia Ritaren lagun min egin zen.
 - Ritari ez zitzaion hegan egitea gustatzen, ezta zeruan zilipurdiak egitea ere.
 - Guztiek ikasi nahi zuten Ritaren moduan zilipurdiak egiten.
 - Eliari esker, guztiek ikasi zuten ez dela inor baztertu behar, desberdina delako bakarrik.
 - Nork bere kolore gustukoenarekin margotu zituen tantoak.
- Behin ipuina irakurrita, egin gogoeta hurrekin. Helburu horretarako, era honetako galderak egingo dizkiegu:
 - Zer gertatu da ikasgelan, Rita heldzean? Hurbildu egin al zaizkio, hura ezagutzeko eta harekin jolas egiteko?
 - Jarrera egokia izan al dute beste marigorrinoek, Rita bestelakoa dela ikustean? Nola sentituko zinatekete, inork zuekin nolastu nahiko ez balu?
 - Nork jokatu zuen hoberen ikasgelan, Ritarengana hurbildu zelako? Zer ikasi zuen Ritarengandik?
 - Zer ikasi zuten besteek, Rita ezagutzean eta harekin zein ongi pasatzen zuten ikustean?
- Ekarri ipuineko paragrafo hau gogora:
Harrezkeroztik ez zen inor baztertua sentitu, lagunak izateko ezin baitira koloreak bakarrik begiratu.
Argi al duzue zer esan nahi duen?

RITA MARIGORRINGOA

Tukuman ikastolan
mantangorriak ikasgelan.
«*Egun on*», irakasleak du hitza,
«*ikaskide berria duzue, hona hemen Rita*».

Guztiak egin diote so, zur eta lur baina,
bestelako koloreak ditu,
marigorringo bitxia, alajaina!

Gorputza berdea du,
ez besteen modura gorri
tanto horiak ditu
ez dauka gure tanto beltzik.

Guztiek egin zuten korri
jolasgaraia heltzean
baina inork ez zion nahi
Ritari baloirik eman.

Elia baino ez zitzaion hurbildu
eta adeitasunez egin zion kasu:
«*Hori tanto politak!*»
«*Eskerrik asko*», Ritak erantzun.

Harrezkeroztik, batak zein besteak
jolasgaraia igarotzen dute batera
partekatzen jolas eta barreak,
sekretu eta nahierak.
Eliak ikusi du Ritari
dantzatzea gustatzen zaiola
hegan zilipurdiak egiten
benetan dela jaioa.

Biak batera zeruan
primeran pasatzen dute
Ritak Eliari irakatsiz
biraka, geratu gabe.

Ikustean bi lagunak
algaraka ari direla
denak hurbiltzen zaizkie
ez galtzeko aukera.

*«Guk ere nahi dugu
jolastu zuekin»,
hala egin zuten bada,
batek bira, bestea zilipurdi.*

**Ez zen egon jolasgarairik
hain bikain eta dibertigarrik
Ritarengana hurbildu ez bagina
galduko genuen osorik!**

**Eliari esan zioten
milesker, laguntzeagatik
jakin eta ulertu baitugu
ez dela arraroa, izatea desberdin.
Ikusi zuten, lagunak izateko
elkar ezagutu behar dutela
eta desberdina delako soilik
inor baztertu ezin dela.**

**Gainera, ikusi zutenez
berdin izateak aspertzen zituela
tantoak margotu zituzten
kolore gogokoenak ateraz.**

**Arros, marroi, urdin,
laranja, lila eta more,
ikastola bapo zegoen
ostadar eta pozez.**

**Harrezkeroztik
ez zen inor baztertua sentitu,
lagunak izateko ezin baitira
koloreak bakarrik begiratu.**

HAMAIKA KOLOREKO MARIGORRINGOAK

Beharko dugun materiala


Rita marigorringoaren txantiloia (Eranskina).
«Bestelakoa bakarrik» ipuinaren abestia.

Garapena

- Eman haur bakoitzari Ritaren txantiloia bat, eta eskatu margotzeko, gehien gustatzen zaizkien koloreak erabilita.
- Gorde toki jakin bat ikasgelan, marrazkiak zintzilikatzeko. Behin hurrek egitekoa amaitzean, jarri marrazkiak bertan.
- Ikusi marrazkiak elkarrekin. Hausnartu, hurrekin, zergatik den garrantzitsua aniztasuna aintzat hartzea, eta inor ez baztertzea, bestelakoa delako bakarrik.
- Amaitzeko, entzun «**Bestelakoa bakarrik**» abestia, ipuinarekin landutako eduki guztiak finkatzeko.

Eranskina

RITA marigorringoaren txantiloia, margotzeko.



Bestelakoa bakarrik abestiaren hitzak

BESTELAKOA BAKARRIK

Tukuman ikastolan
mantangorriak harat-honat.
Ai, hori ikastola xelebrea
denek daramate uniformeak!

Eta irakasleak dio honela,
«Hau Rita da, eta etorri da
gurera».
Denak zur eta lur daude begira
marigorringo hau benetan da
bitxia.

**Gorputza berdea du,
ez gure antzeko gorri
tanto hori biziak,
besteekiko desberdin.**

Jolastokira atera ziren korrika
baina ez zuten jolasteko apeta
Rita marigorringoarekin
itxura normalik ez zuela eta.

Elia baino ez zitzaion hurbildu
eta adeitasunez egin zion kasu:
«Hori tanto politak!»,
«Eskerrik asko», Ritak erantzun.

**Gorputza berdea du,
ez gure antzeko gorri
tanto hori biziak,
besteekiko desberdin.**

Harrezkeroztik, bata zein bestea
jolasgaraian daude batera
partekatuz jolasak, grin eta
barreak.

Eliak ikusi du Ritak
aireko zilipurdiak
oso egiten dituela politak.
«Irakatsiko nola egin?»

Zeruan batera doaz
bi hodeiren antzera,
hegan astinduz hegoak,
lehenik gora, gero behera.

Ikustean bi lagunak
zein ondo dabilzan,
beste marigorringoek ere
nahi zuten egin hegan.

Ohartu ziren berehala
elkar ezagutu behar zutela
Rita arraroa ez dela ulertuz
Bestelakoa bakarrik dela
Bestelakoa bakarrik dela.
Oso bestelakoa gainera.